

HERNANI **eta** **BAZTANGA-IZURRITEA**



1918-04-02

HERNANI y la EPIDEMIA de VIRUELA



Egilea

Jon Oñate Lizarralde

Itzultzailea

GARLO

Itzulpen Zerbitzua

Antolatzailea

Hernaniko San Joan Konpartsa

2018ko Ekainaren 27a

Esker ona

KUTXATEKA

*Bere argazkiak erabiltzea
baimentzeagatik*

Iturrlak

HERNANIKO UDAL ARTXIBOA

(Jesús Mari Gómez)

*HISTORIA DEL MOTÍN OCURRIDO EN
HERNANI EL 2 DE ABRIL DE 1918 POR
EL TRASLADO DE ENFERMOS DE VIRUELA
DE LASARTE AL HOSPITAL DE HERNANI
(2017)*

(Joxan Ruiz - Mikel Ruiz)

HERNANI ENTRE DOS GUERRAS

(1872-1936)

Medio Siglo de Vida de Hernani

(Luis Blas Zuleta)

HERNANI 2007/2008

(Felicísima Gómez)

RELATO BREVE DE LASARTE (2010)

(José Luis Navarro Armendariz)

ZERUKO ARGIA (1972-06-18)

(I. Zubeldia "Konyo")

BERTSOAREN HARIA HERNANIN

(Estitxu Eizagirre Kerejeta)

Julia Ayerra

“Hainbat iturritatik jaso ditugun datuetan oinarrituz, garai hartan gertatutakoak kontatzera gatoz, baina gertaeren inguruan egin daitezkeen interpretazioetan sakontzeko asmorik gabe”.

Apirilaren 2a baino egun batzuk lehentxeago, berri haxe eman zion Hernaniko osasuneko inspektoreak Jose Maria Ubarrechena alkate jaunari: Lasarteko Lizarraga etxean bi baztanga-kasu agertu zirela. Berehala, neurriak hartu zituzten ingurumarietan (Hipodromoaren inguruan; zaldi-lasterketetan ibiltzen zen jendearen artean eta gainerakoen



artean), eta jendeari txertoa jartzen hasi ziren (jockey, prestatzaile, ukuiluzain eta hipikaren munduko gainerakoei).

Handik egun gutxitara, beste bi kasu agertu ziren etxe hartan bertan. Baztangak jotako bosgarrena Lasarteko aguazila izan zen. Kontzeju Etxean bizi zen aguazil hori, nesken eskolak zeuden leku berean.

Kontua hutsala ez zela ikusita, Hernaniko alkateak proposamen bat egin zion Lehen Irakaskuntzako inspektoreari: eskola-egoitza hura egokitzea, baztangadunen ospitale izateko. Sei ziren ordurako gaitza zutenak, eskolan neskatala bat kutsatu baitzen; hortaz, itxi egin behar izan zuten ikastetxea. Hain zuzen ere horregatik, gaixoak behar bezala bakartuta egotea zen asmoa. Inspektoreak, ordea, ezezkoa eman zion alkatearen proposamenari.

Kasuaren larritasunaren aurrean, Hernaniko agintariek gobernadore zibilarengana Juan Pavía y Fernández del Fino jo zuten (Pinofieleko kondearengana, alegia). Gobernadore zibilak, auzoa ikustera joan ondoren, eta inolako azalpenik eman gabe, gaixoak Hernaniko ospitalera eramateko agindua eman zuen, garai hartan Hernaniri atxikita baitzegoen Lasarte.

Hernaniko udal-agintariei ez zitzaien erabaki hura oso egokia iruditu, infekzio-iturria leku batetik bestera eramateko arriskua baitzekarren, eta halaxe esan zioten gobernadoreari. Baina gobernadoreak bereari eutsi zion. Alde zeuzkan, gainera, bai kazetariak eta bai, ziur asko, inauguratu berria zen hipodromoarekin lotutako interesak zeuzkatenak, ez baitzuten nahi izurritearen eraginez zaldi-lasterketak bertan behera geratzerik. Gogoan izan Belle Époque urteak zirela haiek, eta



izurriteak kalte egin ziezaiokeela hiriaren irudiari. Donostian goimailako jendea izaten zen, eta haietako askok Lasarteko hipodromora eta golfean jokatzera joateko ohitura zuten.



Egoera horretan, bilera egin zuten Hernaniko Udalak, Osasun Batzordeak eta Ongintza Batzordeak, eta erabaki hauek hartu zituzten:

- 1.** Aipatutako gaixoak herrian ez hartzea. (Hernanin oso gogoan zeukaten 1913ko eta 1914ko tifus-izurritea, jende asko hil baitzen haren eraginez.)
- 2.** Parrokia-elizako dorretik zelatan jartzea, eta Lasarte aldetik autorik zetorrela ikusiz gero, kanpaia jotzen hastea. Eta kanpai-soinua entzutean, herriaren sarbideetan oztopoak jartzea, eta herritarrek ere lanak utzita kalera ateratzea.
- 3.** Batzorde bat sortzea, arazoari konponbidea emateko asmoz gobernadorearekin berriro hitz egiteko. Aipatutako hiru erakundeetako ordezkariak eta herritar batzuek osatuko zuten Batzordea.

Gobernadoreak ez zuen Batzordeko kideekin hitz egin nahi izan. Probintziako Osasuneko buruak, ordea, haiekin egoteko prest zegoela esan zien, eta biharamunean egingo zutela bilera. Orduantxe esan zien Osasuneko inspektoreak ez zutela konponbiderik aurkituko, gobernadoreak ez baitzituen haien esanak entzun ere egin nahi, eta bere aginduak nahitaez bete behar zirela esaten ari baitzen.

HERNANI eta BAZTANGA-IZURRITEA

1918ko APIRILaren 2a



Mariano Zuaznabar

Batzordeko kideek Donostiako alka-tearengana jo zuen, Mariano Zuaznabarrengana, bitartekaria izan zedin, baina ezezkoa jaso zuten berriro ere, Pinofieleko kondea (gobernadorea) Tolosarako bidean omen zela eta, bisita ofiziala egiteko.

Hernaniko giroan urduritasuna hasi zen sumatzen, herritarrek ez baitzekiten agintariak zehazki zer erabaki zuten. Hortaz, bakoitza bere zereginetara itzuli zen, baina

na kanpai-hotsoa entzun orduko lanak utzi eta herria babestera joateko asmoarekin.

Gizarteko maila guztietakoak zeuden suminduta. Herritar guztiak zeuden baztangadunak hurbilduz gero bidea ixteko prest; gizonak, emakumeak eta haurrak.

Herriaren sarreran, agustindarren komentuaren ondoan, ikaragarritzko hesia egin zuten; enborrak, habeak, upelak, gurdiak... Denetarik jarri zuten han, bidea eragozten. Elektrikari batek goi-tentsioko kable bat moztu zuen, eta kalea batetik bestera zeharkatzen zuela jarri zuten kable hura. Emakumeek, beste borrokaldi batzuetako balentriak gogoan, olio irakinez bete zituzten lapikoak, gero gizonek Zinko-Eneko teilatutik behera guardia zibilar botatzeko, Hernanin ez zedin baztangadun bakar bat ere sartu. Ospitaleratuta zeuden gaixoak etxe partikularretan hartu zituzten, eta gero petrolioz igurtzi zuten ospitalea, behar izanez gero su emateko. Ez zeukaten eraikin hartan baztangadunak hartzeko inolako asmorik. Mojen ama nagusia, sor Patrocinio, Maria Kristina erreginarekin telefonoz hitz egiten ahalegindu zen.



Maria Kristina erregina

Gauzak horrela, egoera benetan larria zela jakinarazi zion polizia-buruak, Portas teniente koronelak, gobernadoreari. Tolosan zen gobernadorea, eta Hernanira joateko agindua eman zion Portasi; batetik, herrian ordena jartzeko, eta, bestetik, lehendik ere aginduta zeukan bezala, baztangadunak hara eramateko.

Erabaki horrek amorru handia eragin zuen herrian. Halako batean, api-



rilaren 2an, Santa Barbaran eta parrokiako dorrean zeuden zela-tariek osasun-kotxeetan lehena ikusi zuten, Lasartetik Hernanirantz Galarretan barna zetorrela. Kanpai guztiak ordara jotzen hasi ziren, eta herritar guztiak borrokarako pronto jarri ziren.

Teniente koronelak, Hernanira joanda, bilera egin zuen alkatea-rekin. Alkateak herritarren iritzia eta jarrera azaldu zizkion, eta beste behin ere konponbide bat aurkitu nahian, proposamen haxe egin zion teniente koronelari, Hernaniko Udalaren izenean: gaixoak herrira ez ekartzearen truke, hogeita lau orduko epean docker ospitale bat eraikiko zuela -docker motako egurrezkoak izaten zirelako deitzen zitzaaien horrela-, hernaniar guztien lan-kidetzarekin, Lasartetik gertu; kolera zuten gaixoentzat 1885ean eraikitakoaren oso antzekoa.

Hona Portas jaunak gobernadoreari telefonoz esandakoa:

“Gobernadore jauna, Hernanin larria da egoera. Herritar guztiak claude Lasarteko baztangadunak haien ospitalera eramatearen kontra, eta eraikinari su emateko prest claude. Nik, nire egitekoa betez, ospitalera eramango ditut gaixoak, eta galarazi egingo dut eraikinari inork su ematea, baina jakin beza berorrek gizon, emakume eta haurren odola isuri beharko dela horretarako”.

Gero, Hernaniko Udalak egindako eskaintzaren berri eman zion.

Gobernadorearen erantzuna haxe duze:

“Odola isurtzera iritsi baino lehen bilatu behar da konponbidea, eta Hernanik eman duenez konponbidea, EZ DEZATELA ATERA gaixo bakar bat ere Lasartetik”.

Alabaina, elkarrizketa horretan ari ziren bitartean, gaixoen lehen kotxea azaldu zen Antziolako bidean, ondoan guardia zibilak zaldi gainean babesle zituela. Hernaniarrek berehala eman zuten erantzuna. Irakas-

leak eta haurrak lehen lerroan jarri ziren, eta haien atzean gainerako herritar guztiak.

EMAKUMEEK lan eskerga egin zuten egun hartan; haien artean, Mikela Garmendiak eta Asuntxion Errazkinek. Fusilak kendu zizkieten guardia zibilei, eta, zaldien aho-uhalei eutsita, bultza eginez, zalditeriaren martxaren zentzua aldatzea lortu zuten. Bi emakume haien adorea ikustean, gainerako andreek ere bat egin zuten erreboltarekin, eta lortu ere lortu zuten eskoltek amore ematea eta Lasartera itzultzea.

Horrela bukatu zen Hernaniko 1918ko apirilaren 2ko matxinada. Nahiz eta herritar guztiek hartu zuten parte, historiak Hernaniko EMAKUMEAK goستن dituz bereziki, haiek izan baitziren gertaera hartako benetako protagonistak, txalogarriak izan baitziren haien ausardia, sendotasuna eta herri maitea babesteko grina.

Ezinezkoa zaigu emakume haien guztien izen-abizenak jakitea, baina, gutxi batzuk aipatuz, haiek GUZTIAK omendu nahi genituzke, nolabait.

MICAJELA GARMENDIA GOÑI, (MIKELA PRUTU)

ASUNTZION ERRAZKIN, (ASUNTZION ANARRI)

JOSEFA ZUBELDIA ELIZEGI, (MATEA JOXEPA ZUBELDIA ELIZEGI)

CARMEN ETXENIKE BERRA

Ondorioak eta gero gertatutakoak

Apirilaren 2 hartako arratsaldean, Tolosatik itzuli zen gobernadorea, trenez. Hernanin luto-egun bat gertatzea eragotzi zuela-eta, oso pozik zegoela esan zien kazetariei.

Handik egun batzuetara, Hernanin sortutako Batzordeko kide batzuek argitu egin nahi izan zituzten Donostiako aldirikari batzuetan agertutako albisteak, «burla» iruditzen baitzitzaien gobernadoreak esandakoa, ondotxo baitzekiten haiek egiaz zer gertatu zen. Ez zuten isilik gertatzeko asmorik, isiltasun horrek ez baitzion mesederik egingo Batzordeak egindako egundoko lanari. Labur esanda, «Suum cuique» aldarrikatzen duten Batzordeko kideek; euskarara ekarrita, bakoitzari berea.

Gertaera horien ondorioz, gobernadoreak, Pinofieleko kondeak, utzi egin behar izan zuen kargua.

Apirilaren 7an, beste bilera bat egin zuten Hernaniko udaletxean,

Jose Maria Ubarrechena alkate jaunak deituta. Batzordeko kide guztiak elkartu ziren han, herritarrei ordura arte egindakoaren inguruko xehe-tasunak emateko asmoz.

Hona hemen bilkura haren aktako zati nagusiak:

“Alicate jaunak hartu zuen hitza. Lehenik eta behin, gobernadorearen jokabide itsusia izan zuen hizpide (zitala, Batzordeari harrera egin ez ziolako, nahiz eta bezperatik zeukan berarekin elkartzeko zeukaten asmoaren berri), bai eta gobernadorearen “ihesaldi” lotsagarria ere, haren jokabide zitalaren erakusle. Ondoren, protesta eginez idatzitako telegramak irakurri zituen, honako hauei bidali zizkienak: Ministroen Kontseiluko presidenteari (Antonio Maura), Jauregiko maiordomo nagusiari, Gobernazioko ministroari (Garcia Prieto) eta Barrutiko diputuari (Santillanako markesa).

Goretsi egin zuen hernaniarrek erakutsitako jokabide sutsua, maila guztietako gizon eta emakumeek jo baitzuten, eskura zeuzkaten baliabideekin, beren herri kuttuneko ondasun moral eta materialak zapal zitezen eragoztera, elkarriketaren bidez konpontzeko borondaterik ez zegoela ikusita. Jarrera horren aurrean, gobernadore jaunak, ordura arte hain bihotz-gogorra izandakoak, aldatu egin zuen bere iritzia, eta horretan zerikusi handia izan omen zuten Portas teniente koronelaren tentuak eta trebetasunak; izan ere, gobernadorearengandik agindu zorrutz eta gogorak jaso zituen arren, Hernaniko herriaren jarreraren berri eman nahi izan zion gobernadoreari, aginduak bete baino lehen.

Esan bezala, neurri handi batean teniente koronelaren tentuari esker lortu zuten hernaniarrek gaixoak bertara ez eramatea eta, era berean, bakean bizi zen herria egun hartan lutoz ez janztea, hala gertatuko baitzen gobernadorearen nahia, basakeria baino ez zena, bete izan baitz.

Gobernadorearekin adostutako konponbidea Lasarte inguruetan barrakoi bat eraikitzea izan zenez, lan horien berri eman zuen alkateak, eta esan zuen nahi beste erraztasun eman zizkiola Zuaznabar jaunak, Donostiako alkatea eta Ongintza Batzarreko presidentea zenak.

Eta Lasarten zitzu bizian egindako lan haiek nolabait saritzeko asmoz, honako hauei eskertza-boto bat ematea proposatu zuen, eta baiezkoa jaso zuen proposamenak: Setién arkitektoari, Romero jaunari, eta baztangak jotako gaixoentzako barrakoa lehenbailehen eta borondate hutsez eraikitzen lagundu zuten guzti-guztiei. Donostiako alkate Zuaznabar jaunari eta Osasuneko inspektore probintzialari ere eman zizkieten eskerrak, noski.

Ondoren, Victoriana Olasagastik (Carrascoren alargunak) eta Maria

Concepción de Lazcanok Hernaniko herriari zorionak emanaz bidalitako gutunak irakurri zituen, eta bertan ziren txalo-zaparradarekin erantzun zuten.

Apirilaren biko egun hura ospatzeko, alkateari, erretoreari eta Ongintza Etxeko ama nagusiarri omenaldia egitea proposatu zuten biieran ziren batzuek. Ceferino Gaztelumendi batzordekideak idatzitako proposamen bat ere irakurri zuten, lanaz besteko kontuengatik ez baitzuen bertaratzerik izan.

Egitasmo hori eta beste batzuek aztertzeko (hala nola, gastuak ordaindu ahal izateko harpidetza bat zabaltzea), eta, azken batean, zer egin erabakitzeko, Batzorde bat sortu zuten, honako hauek osatu zutena: José Maria Ubarrechena, Ricardo Rezola, José Maria Puig, Florencio Sarasqueta, Andrés Alcain, Francisco Sagastiberri, José Maria Fuentes, Julian Miranda, Felipe Miner, Policarpo Zaragüeta, José Cuevas, José Romero, Pedro Goni, Eugenio Vicente, Gervasio Achucarro, José Maria Orradre, José Luis Cendoya, Teófilo Ibañez, Manuel Zubillaga, Fernando Montes eta Ceferino Gaztelumendi”.

Horrela, bukatutzat eman zuen bilera.

Oharra: Jatorrizko akta Hernaniko Udal Artxiboan dago, 1. Espedienteko 5. liburuko 14. Bulegoko A atalean.

Egun haren omenez, ekainaren leian ospakizun eder askoak izan ziren herrian.

Egunsentiarekin bat, apainduta esnatu zen Hernani. Goizeko seietan, musika-bandek eta txistulariek diana jo zuten herriguneko kaleetan. Zortzi eta erdietan, udal-agintariak eta jai-batzordeko kideak, atzetik hernaniar guztiak eta bandak zituztela, herriaren sarrerara joan ziren, prozesioan, Kale Nagusian barna, eta han plaka oroigarri bat azaldu zuten, Latsunberako bidean den agustindarren komentuaren aurreko harresian. Hauxe esaten zuen plakak: “AVENIDA 2 DE ABRIL”.

Garai hartako kroniken arabera, argazki bat atera zuten plaka erakusteko unean. Guk ezin izan dugu argazkia eskuratu, baina, dirudienez, hauek ikus zitezkeen bertan:

- 1. Harresian plaka ipintzeko egindako adreiluzko obra.*
- 2. Argazkiaren erdian, agintariak, Hernaniko bandera eskuan eta jantzi ilunak soinean. Batzuek ondo-kapelak edo garaiko kanotierak zeramatzaten buruan.*
- 3. Txistulariak, Nicolás Zubillaga eta Isidro eta José Ansorena anaiak,*

Uzcudun danbolin-jotzailearekin.

4. Plakatik metro batera, idazkun bat, zirkulazioko inskripzio hauxe zeramana: «Automóviles despacio», «Diez kilómetros por hora».

Beste ekitaldi hauek ere izan ziren:

1. Milagrosako Ama Birjinaren prozesioa. Horretarako, ospitaletik parrokiara eramán zuten Ama Birjina.

2. Meza nagusia, Gervasio Achucarro apaizak emana.

3. Pilota-partida: Rekondo anaiak Zubillaga eta Minaren kontra.

4. Herri-bazkaria, Tilosetan, 7,50 pezetaren truke.

5. Ohorezko aurrekua.

6. Zinema publikoa.

Ospakizun horietan, Josefa Zubeldia (Matea Joxepa Zubeldia Elizegi) bertsolari hernaniarrak, 1867an Hernaniko Ibarluze baserrian jaio eta 1947an Kale Nagusian hil zenak, Joxan eta Mikel Ruizen amonak, 24 bertso bota zituen gertakizunen inguruan, mahai baten gainera igota.





Matea Joxepa Zubeldia Elizegi

Apirillaren biyan
Ernaniko erriya
Lau orbuban egon zan
ikaragarriya.
karrasi ta diarka
orduiko larriya
eskerrak gendubela
batasun aundiya.

Gertaerau izan zan
astartiarekin
aurreko egunian
ezkenduben jakin
emen izandu zala
astelenarekin
Gobernadore jauna
gogor egin nairik.

Ikusi nai zubela
bere begiyekin
Emaniko ospitala
nola zegon jakin
ia ote zegoen
kondiziyuakin
erakutsi ziyoten
leyaltasunakin.

Laister ontzat eman du
kondiziyo onakin
bialdutzeko zazpi
gaxo bastangakin
baña beste gauza asko
mintzu oyen gatik
etzitun erabaki
emengo jaunekin.

Gobernadoriari
gure alikalte jaunak
eskeñi omen zizkan
erosotasunak
zaindu ta sendatzeko
an bastangadunak
toki berezi baten
txit ederki danak.

Alperrik izan ziran
arrazoi guziyak
etzizkan aintzat artu
Gobernadoriak
askotan oi bezala
beriak obiak
entzun gor egin ziyon
goi agintaryak.

Gure alkate jaunak
bere lagunekin
Donostira juan ziran
gabeko amaikakin
konpontzen ote ziran
jaun aundi orrekin
triste bueltatu ziran
goizeko irurakin.

Gabez juanagatikan
larritauakin
etziyen kasorikan
jaun oyeri egin.
Au egiten dubenak
erriko jaunekin
zer egingo ote du
jende pobriakin?

Goizeko zaspizetan
ostera juan dira
Tolosa juan zayote
Gobernadoria
ayek bialdu zuten
errira partia
"bastanga eta indarra
beriala or dira".

Ordubantxe Ernanin
etzan lo jendia
kanpana ta tronkua
clantzatubak dira
tronko aundlikin itxi
ziraden bidia
barrika gurdi eta
asma al guziyak.

Bidera atera ginan
emakume asko
ta allegatu banolen
egin dugu alto
zibilia esan zigun
etxera biltzeko
baizutela baimena
odola isurtzeko.

Isurtzen badezute
odola gurekin
ill biarrak zerate
zeon zalduyekin
guziyok bizkor gaude
gauza gogorekin
biurte obe dezute
bastangadunekin.

Zibilla pranko baizan
zaldi galantakin
guri desapiyoka
beren ezpatakin.
Ez ginan ez izutu
oyek guziyekin
danok atera ginan
mirari aundiyakin.

Mikela ta Asentxi
pareja fuertial
Ayek aurren zirala
fin ginan jendia
zarrak eta gastiak
neskatx ta andriak
andre txit aberatzak
baitaere pobriak.

Lana egin genduban
kupira aundigabe
senarrak usirikan
baskayrik gabe
ustuta petroleos
ospitala yursi
aguro errezeko
kristal danak ausi.

Apaizak eta monjak
negar eta ausi
alako tranzerikan
ez nuben ikusi
gure monja gasuak
belauniko jarri
eta telefonuan
Madrída Maurari.

Arren suplikatzeko
Gobernadoriari
nolako tranze estuban
zegoen Ernani
Alkatia aurrenzala
Ernaniko jaunak
ondo egin zitusten
telefono lanak.

Molestatu zitusten
errequeta danak
Garcia Prieto ta
Santillana danak
azkeneko tranzian
estu eta larri
suplikatu zioten
koronel jaunari.

Arren erregutzeko
Gobernadoriari
es usteko galdutzen
orrela Ernani
permisua eskaturik
Montes prestubari
bere telefonuan
Tolosara jarri.

Atenditurik ondo
teniente koronelari
eta gahera gure
alicate jaunari
orduban bikundu da
biyotz gogorrori
damus barkazen zayo
pekatariyari.

Urrengo egunian
gustiyok alkarri
"emen gertatu danak
ametz bat diruri"
kulpa gabe galtzerik
nonbait ez komeni
graziyak eman danok
jangoilko jaunari.

Nik suplikatzen diyot
alkate jaunari
osekiyo txiki bat
emakumiadi
zortziko eder batekin
zar da gastiaidi
alegre gerta dedin
egun tristiori.

Gizonak erregalo
emakumiadi
loretxo polipana
zar da gastiaidi
egun artan gustiyok
janzita ibilli
ondo distingitzeko
egun aundiyori.

Orra berso berriyak
andrebatik jarri
estiot esker txarrik
ematen inori
orduko uniyua
betida komeni
ala gerta dedilla
biba gu ta Ernani.

“Sin querer entrar en las diversas interpretaciones que se puedan dar a este acontecimiento, vamos a relatar, tomados de diversas fuentes, los hechos acaecidos en esas fechas”.

El Inspector de Sanidad municipal de Hernani, comunicó días antes al alcalde de la Villa, Don Jose Maria Ubarrechena, la aparición en Lasarte, casa llamada de Lizarraga, de dos casos de viruela. Inmediatamente se tomaron las medidas oportunas de localización (zona del Hipódromo -bien personas del mundo del hipódromo como ajenas al mismo-), vacunación general, incluyendo jockeys, preparadores, mozos y demás personal pertenecientes a la hípica, con vistas a impedir que la enfermedad adquiriera mayores proporciones.



HERNANI y la EPIDEMIA de VIRUELA

2 de ABRIL DE 1918

Pocos días después se presentaron dos casos más en la misma casa y un quinto caso de viruela lo sufrió el alguacil de Lasarte, que vivía en la Casa Concejil, donde se hallaban instaladas las escuelas de niñas.

Ante el cariz que estaba tomando el asunto, el Alcalde de Hernani, propuso al Inspector de Primera Enseñanza la habilitación del citado local escolar para hospital en el que acoger a los afectados por la viruela, que en ese momento eran seis, al haberse contagiado también una niña en la escuela, lo que obligó a cerrar las instalaciones y pudiendo ser utilizado para un mejor cuidado con las mayores garantías de aislamiento. Sin embargo el Inspector se negó a aceptar la idea.

Dada la urgencia del caso, las autoridades locales apelaron al Gobernador Civil D. Juan Pavía y Fernández del Fino (ostentaba el título de Conde de Pinofiel), quien, tras una visita al barrio y sin ninguna explicación ordenó el traslado de los enfermos al Hospital de Hernani, municipio al que pertenecía Lasarte.

Las autoridades municipales de Hernani hicieron observar al Gobernador la imprudencia de trasladar el foco de la infección de un lado a otro, pero se encontraron con la actitud intransigente del gobernador, el cuál contó con el apoyo de cierta prensa y acaso por ciertos elementos muy interesados en que los espectáculos hípicos del recientemente inaugurado hipódromo, no fueran suspendidos a causa de la epidemia. Hay que recordar que estamos en los años de "Belle Époque" y lo que la epidemia podría perjudicar a la imagen de la ciudad dado el turismo de la Alta Sociedad que se congregaba en Donostia y que acudirían habitualmente al hipódromo o a jugar al club de golf de Lasarte.





Ante ello, fué convocada una reunión del Ayuntamiento de Hernani, Junta de Sanidad y Junta de Beneficencia, en donde se acordó:

- 1. No admitir a dichos enfermos (todavía se recordaba la epidemia de Tifus de 1913-1914, que en Hernani ocasionó la muerte de muchas personas).*
- 2. Desde la torre de la Iglesia Parroquial se vigilaría la venida de coches desde Lasarte, y al toque de las campanas, los obreros abandonarían sus puesto de trabajo para formar barricadas en las entradas de dichas carreteras, y a la vez el vecindario saldría a la calle.*
- 3. Formar una Comisión con representantes de las tres entidades citadas y personalidades de la localidad, y cuyo objetivo era entrevistarse de nuevo con el Gobernador y dar una solución al conflicto.*

Sin embargo ésta comisión no fue recibida por el gobernador y sí por el Jefe de Sanidad Provincial, con el que quedaron para el día siguiente. Siendo entonces cuando el Inspector de Sanidad comunica que no era posible hallar una fórmula de arreglo por cuanto el Gobernador se negaba a escucharles y se empeñaba en que había que cumplir sus órdenes.

A pesar de todo la Comisión solicitó la mediación del Alcalde de San Sebastián, Sr. Mariano Zuaznabar, para que se pudiera realizar la reunión, y una vez más la contestación fue que era imposible ya que el Conde de Pinofiel (gobernador) se encontraba en visita oficial hacia Tolosa. En Hernani, la agitación crecía por momentos. Sin noticias del resultado de las



Mariano Zuaznabar

gestiones que se intentaban realizar, la población trabajadora acudió a sus labores con el firme propósito de abandonar sus puestos de trabajo a la primera señal de alarma para disponerse a la defensa del pueblo.

La indignación alcanzó a todas las clases sociales. El vecindario entero (hombres, mujeres, niños y niñas) se lanzaría a la calle para salir, en caso de que llegase, al paso de la comitiva.

A la entrada al pueblo, junto al convento de las Agustinas, fué levantada una gran barricada de troncos de árboles, vigas, toneles, carros, etc. Un electricista cor-

tó un cable de alta tensión y se colocó atravesando la calle. Las mujeres, reviviendo gestas de otras guerras, prepararon pucheros de aceite hirviendo para después los hombres, desde los tejados de Zinko-Enea, arrojarlas a las fuerzas de escolta de la guardia civil e impedir que la comitiva llegase a Hernani. Los ancianos y niños acogidos en el Hospital fueron alojados en casas particulares y después se roció el edificio con petróleo, dispuestos, en última instancia, a incendiarlo antes de consentir el alojamiento de los enfermos de viruela. La Madre Superiora de las monjas, Sor Patrocinio, intentó hablar telefónicamente con la Reina Ma Cristina.

Mientras tanto, el Jefe de la Policía, comunica la gravedad de la situación al Gobernador (que seguía la incidencias desde Tolosa), y éste ordena al Jefe de la Guardia Civil, Teniente Coronel Portas, se traslade a Hernani a imponer el orden y efectuar el traslado de los enfermos de viruela según estaba dispuesto.

Esta decisión incrementó la tensión existente y así cuando, el día 2 de Abril, los vigías apostados en Santa Bárbara y en la Torre Parroquial avistaron en Galarreta el primero de los coches sanitarios que desde Lasarte se dirigían a Hernani, todas las campanas tocaron a "rebato" y el pueblo se dispuso para la lucha. El teniente coronel, personado en Hernani, se reunió con el Alcalde quién le comunicó la opinión y actitud del pueblo, a la vez que, en un último esfuerzo por llegar a una solución, el Ayunta-



Maria Kristina y su hijo
Alfonso XIII

miento de Hernani, a cambio de no efectuar ningún traslado de enfermos, se comprometió a construir en veinticuatro horas, con la cooperación de todo el vecindario, un Hospital "docker" (denominado así por fabricarse con madera tipo "docker"), en un sitio próximo a Lasarte donde ya en 1885 hubo un "lazareto" (hospital o edificio similar) análogo para enfermos de cólera.



El Sr. Portas, telefónicamente le comunica al Gobernador lo siguiente:

"Sr. Gobernador: en Hernani está grave la situación. El pueblo entero se opone a que se lleven a su Hospital los enfermos de viruela de Lasarte y está dispuesto a quemar el edificio. Yo cumpliendo mi deber, me comprometo a llevar al Hospital a los enfermos y a impedir la quema del edificio, pero he de advertir a V.E. que será preciso el derramamiento de sangre de hombres, mujeres y niños".

Seguidamente le expone el ofrecimiento del Ayuntamiento hernaniarra. El Gobernador contesta que:

"antes de llegar al derramamiento de sangre era preciso buscar una solución y puesto que Hernani la da, NO SE SAQUE a ningún enfermo de Lasarte".

Sin embargo ocurrió que mientras se estaban en estas conversaciones, apareció, en la recta de Antziola, el primero de los coches de enfermos, custodiados por la Guardia Civil a caballo. La reacción fue inmediata. Los maestros y los/las niñas/os se colocaron en primera fila seguidos del pueblo en masa.

HERNANI y la EPIDEMIA de VIRUELA

2 de ABRIL DE 1918



LAS MUJERES, en éste hecho, tuvieron un protagonismo fundamental, y entre ellas Mikela Garmendia y Asuntxion Errazkin, se lanzaron a quitar los fusiles a los Guardias Civiles y colgándose de las riendas de los caballos, a empujones, consiguieron cambiar el sentido de la marcha de la caballería. Ante ello el resto de mujeres se unieron a la revuelta, hasta conseguir que las fuerzas de escolta optaran por la retirada hacia Lasarte.

Así se puede decir que terminó el "motín de Hernani del 2 de Abril de 1918", y aunque participaron todas las perso-

nas del pueblo, por su valentía, fortaleza y disposición a defender lo que consideraban de justicia luchar por ello, la historia colocó a las MUJERES de Hernani como protagonistas de este acontecimiento y como ejemplo a seguir en cualquier tipo de lucha.

Nos es imposible conocer la identidad de cada una de ellas, pero mencionando a algunas, quisiéramos que TODAS se sintieran homenajeadas.

MICAELA GARMENDIA GOÑI, (MIKELA PRUTU)

ASUNTXION ERRAZKIN, (ASUNTXION ANARRI)

JOSEFA ZUBELDIA ELIZEGI, (MATEA JOXEPA ZUBELDIA ELIZEGI)

CARMEN ETXENIKE BERRA

Consecuencias y acontecimientos posteriores

En el tren correo de la tarde del mismo día 2 de Abril, regreso de Tolosa el Gobernador, quien al recibir a los periodistas les manifestó "la satisfacción experimentada por haber evitado un día de luto en Hernani".

Días más tarde, y aclarando algunos puntos de las informaciones periodísticas varias personas que formaban parte de la Comisión creada en Hernani se creyeron en la obligación de contestar a dichas publicaciones de San Sebastián, y entre otras entienden que las palabras del Gobernador es una "burla" en los oídos de quienes sabemos lo ocurrido y que en caso de callarnos creeríamos que con ellas se pone en "Inri" (desconsideración) a la gestiones que hizo la Comisión... "Suum cuique" (a cada cual lo suyo).

A raíz de estos acontecimientos, el Gobernador (Conde de Pinofiel) tuvo que dimitir de su cargo.

El día 7 de Abril se convoca, por el Sr. Alcalde, Don Jose Maria Ubarrechena, una nueva reunión en el Ayuntamiento de Hernani con todos los integrantes de la Comisión, con el objeto de dar cuenta a todo el pueblo de las infructuosas gestiones que se habían realizado.

A continuación transcribimos lo más importante del Acta de la reunión:

“Hizo uso de la palabra el Señor Alcalde exponiendo en primer lugar la incalificable desconsideración del Sr. Gobernador al no recibir en audiencia a la Comisión que ya desde la víspera le fuera anunciada, y la vergonzosa “huida” con que refrendó su actitud intransigente. Leyendo a continuación los telegramas de protesta que se dirigieron en consecuencia a los Señores Presidente del Consejo de Ministros (Sr. Antonio Maura), Mayordomo Mayor de Palacio, Ministro de Gobernación (Sr. Garcia Prieto) y al Diputado por el distrito (Sr. Marqués de Santillana).

Alabando cual se merece la enérgica y unánime actitud del vecindario de Hernani que sin distinción de clases ni sexos acudió a impedir por todos los medios a su alcance, ya que a razones no se quería atender, el que se pisotearan de manera tan inicua los intereses morales y materiales de su muy amada villa, hizo ver a esa actitud obedecía el cambio de parecer, antes tan irreductible, del Sr. Gobernador, bien que haciendo constar que contribuyó en gran manera al éxito la prudencia y tacto del Teniente Coronel Sr. Portas, quien no obstante las órdenes terminantes y draconianas que recibiera del Sr. Gobernador se prestó gustoso a hacerle presente antes de llevarlas a efecto, la actitud del pueblo de Hernani.

A su prudencia, decimos, se debe en gran parte el que Hernani consiguiera el que los enfermos no fueran trasladados como pretendía el Sr. Gobernador, así como el alejar el que ese día llenara de luto a un pueblo pacífico, como en efecto hubiera sucedido de haberse llevado a cabo el atropello.

Como la fórmula de arreglo acordada entre el Sr. Gobernador y el Sr. Alcalde, fue el que se construyera un barracón en las inmediaciones de Lasarte, dió cuenta de los trabajos realizados al efecto haciendo constar que encontró las mayores facilidades por parte del Sr. Zuaznabar, como Alcalde y como Presidente de la Junta de Beneficencia de San Sebastián. Y para premiar de alguna manera los trabajos febrilmente realizados en Lasarte, propone y así se acuerda dar un voto de gracias, al Arquitecto Sr. Setién, al Sr. Romero y todos los demás que contribuyeron con su desinteresado esfuerzo a la pronta instalación del barracón para los enfermos de viruela, incluyendo, claro está, al Sr. Zuaznabar -Alcalde de San Sebastián- y al Inspector Provincial de Sanidad.

Leyéndose a continuación las felicitaciones que al pueblo de Hernani y a raíz de los sucesos enviaron las Señoras Doña Victoriana Olasagasti -viuda de Carrasco y Doña María Concepción de Lazcano, felicitaciones que el público presente subrayó con una salva de aplausos.

Para conmemorar la fecha del dos de Abril expusieron, varios de los presentes, proyectos de homenaje a los Señores Alcalde, Párroco y Superiora de la Casa de Beneficencia, abundando en el mismo sentido un escrito que se leyó de Don Ceferino Gaztelumencii, miembro de la Comisión, que excusó su asistencia por trabajos ajenos a su profesión.

Para estudiar éste y otros proyectos como el de abrir una suscripción destinada a sufragar los gastos de la instalación y acordar en definitivo que es lo que se ha de hacer, se nombró una Comisión compuesta por los Señores Don José María Ubarrechena, Don Ricardo Rezola, Don José María Puig, Don Florencio Sarasqueta, Don Andrés Alcain, Don Francisco Sagastiberri, Don José María Fuentes, Don Julian Miranda, Don Felipe Miner, Don Policarpo Zaragüeta, Don José Cuevas, Don José Romero, Don Pedro Goñi, Don Eugenio Vicente, Don Gervasio Achucarro, Don José María Orradre, Don José Luis Cendoya, Don Teófilo Ibañez, Don Manuel Zubillaga, Don Fernando Montes y Don Ceferino Gaztelumendi".

Con esto se da por finalizada la reunión.

Nota: El acta original figura en el Archivo Municipal de Hernani, en la sección A., Negociado, 14. del libro, 5, Expediente 1.

En conmemoración de aquella jornada, el día 1 de junio, se celebraron unas magníficas fiestas.

Desde primeras horas de la mañana apareció el pueblo engalanado. A las seis de la mañana las bandas de música y txistularis tocaron una diana por las calles céntricas. A las ocho y media, el Ayuntamiento y la Comisión organizadora de festejos, seguidos por todo el vecindario y por las bandas, recorrieron la Calle Mayor en procesión hasta la entrada del pueblo, donde se procedió a descubrir una Placa conmemorativa -en el muro de piedra situada enfrente del convento de M. M. Agustinas hacia Latsunbe- con la inscripción: "AVENIDA 2 DE ABRIL".

No lo hemos podido conseguir, pero según crónicas de la época había fotografía de la colocación de la placa, y en donde se podría ver:

- 1. La obra de ladrillo efectuada en las piedras del muro, para colocar la placa.*
- 2. A las autoridades con la bandera de Hernani en medio vestidos de oscuro y algunos luciendo en la cabeza los "bombines" ó "canotiers" de la época.*

3. A los txistularis, Nicolás Zubillaga y a los hermanos Isidro y José Ansorena acompañados del tamborilero Uzcudun.

4. Un letrero a un metro de distancia de la placa con una inscripción de circulación que decía: "Automóviles despacio", "Diez kilómetros por hora".

Durante los festejos también se realizó:

1. Una procesión de la Virgen Milagrosa, que fué trasladada al efecto del Hospital a la Parroquia.

2. Misa Mayor oficiada por Don Gervasio Achucarro.

3. Partido de Pelota - Hermanos Recondo contra Zubillaga y Mina.

4. Comida Popular, a 7,50 pesetas el cubierto, en los Tilos.

5. Aurreku de Honor.

6. Cine Público.

En el transcurso de éstos actos, la bertsolari hernaniarra Doña Josefa Zubeldia (Matea Joxepa Zubeldia Elizegi) -nacida en 1867 en el caserio Ibarluce de Hernani y fallecida en la Calle Mayor en el año 1947-, abuela de Joxan y Mikel Ruiz, subida en una mesa cantó 24 bertsos, relacionados con los hechos acaecidos.





Matea Joxepa Zubeldia Eiizegi

Apirillaren biyan
Ernaniko erriya
Lau orbuban egon zan
ikaragarriya.
karrasi ta diarka
orduko larriya
eskerrak gendubela
batasun aundiya.

Gertaerau izan zan
astiartiarekin
aurreko egunian
ezkenduben jakin
emen izandu zala
astelenarekin
Gobemadore jauna
gogor egin nairik.

Ikusi nai zubela
bere begiyekin
Ernaniko ospitala
nola zegoen jakin
ia ote zegoen
kondiziyuakin
erakutsi ziyoten
leyaltasunakin.

Laister ontzat eman du
kondiziyon onalcin
biakiutzeko zazpi
gaxo bastangakin
baña beste gauza asko
mintzu oyen gatik
etzitun erabaki
emengo jaunekin.

Gobernadoriari
gure alkaite jaunak
eskeni omen zizkan
erosotasunak
zaindu ta sendatzeko
an bastangadunak
toki berezi baten
txit ederki danak.

Alperrik izan ziran
arrazoi guziyak
etzizkan aintzat artu
Gobernadoriak
askotan oi bezaia
beriaik oblaik
entzun gor egin ziyon
goi agintaryak.

Gure alikate jaunak
bere lagunekin
Donostira juan ziran
gabeko amaikakin
konpontzen ote ziran
jaun aundi orrekin
triste bueltatu ziran
goizeko irurakin.

Gabez juanagatikan
larritaunakin
etziyen kasorikan
jaun oyeri egin.
Au egiten dubenak
erriko jaunekin
zer egingo ote du
jende pobriakin?

Goizeko zaspiretan
ostera jua dir
Tolosa jua zayote
Gobernadoria
ayek bialdu zuten
errira partia
"bastanga eta indarra
beriala or dira".

Ordubantxe Ernani
etzan lo jendia
kanpana ta tronkua
clantzatubak dira
tronko aundikin itxi
ziraden bidia
barrika gudi eta
asma al guziyak.

Bidera atera gina
emakume asko
ta aliegatu banolen
egin dugu alto
zibilak esan zigun
etxera biltzeko
baizutela baimena
odola isurtzeko.

Isurtzen badezute
odola gurekin
ill biarrak zerate
zeon zalduyekin
guziyok bizkor gaude
gauza gogorekin
biurte obe dezute
bastangadunekin.

Zibilla pranko baizan
zaldu galantekin
guri desapiyoka
beren ezpatakin.
Ez gina ez izutu
oyek guziyekin
danok atera gina
mirari aundiakin.

Mikela ta Asentxi
pareja fuertia!
Ayek aurren zirala
fin gina jendia
zarrak eta gastiak
neskatx ta andriak
andre txit aberatzak
baitaere pobriak.

Lana egin genduban
kupira aundigabe
senarrak usirika
baskayrik gabe
ustuta petroleos
ospitala yursi
aguro errezeko
kristal danak ausi.

Apaizak eta monjak
negar eta ausi
alako tranzerikan
ez nuben ikusi
gure monja gasuak
beiauniko jarri
eta telefonuan
Madrída Maurari.

Arren suplikatzeko
Gobernadoriari
nolako tranze estuban
zegoen Ernani
Alkatia aurrenzala
Ernaniko jaunak
ondo egin zitusten
telefono lanak.

Molestatu zitusten
erregueta danak
Garcia Prieto ta
Santillana danak
azkeneko tranzia
estu eta larri
suplikatu zioten
koronel jaunari.

Arren erregutzeko
Gobernadoriari
es usteko galduzen
orrela Ernani
permisua eskaturik
Montes prestubari
bere telefonuan
Tolosara jarri.

Atenditurik ondo
teniente koronelari
eta gañera gure
alkate jaunari
orduban bikundu da
biyotz gogorrori
damus barkazen zayo
pekatariyari.

Urrengo egunian
gustiyok alkarr
"emen gertatu danak
ametz bat diruri"
kulpa gabe gaitzerik
nonbait ez komeni
graziyak eman danok
jangoiko jaunari.

Nik suplikatzen cliyot
alicate jaunari
osekiyo txiki bat
emakumiadli
zortziko eder batekin
zar da gastiaidli
alegre gerta dedin
egun tristiori.

Gizonak erregalo
emakumiadli
loretxo polipana
zar da gastiaidli
egun artan gustiyok
janzita ibilli
ondo distingitzeko
egun auncliyori.

Orra berso berriyak
andrebatik jarri
estiot esker txarririk
ematen inori
orduko uniyua
betida komeni
ala gerta dedilla
biba gu ta Ernani.



GARDANBERA
naturaleta osasuna

EKODENDA
Antziola, 2 • 943 33 68 43



**Hernaniko
Udala**



OINDI
taberna

**NAGUSIA, 25
HERNANI**
943 557 509



URRATS
OINETAKOAK

Iturriaga, 3 HERNANI
Tel. 943 55 65 64
urratshernani@gmail.com
f urratshernani



ZULAICA
ASESORIA

Andre kale, 68 • 20120 HERNANI
Tels. 943 551 494 - 943 551 912 • Fax 943 551 130



brintza
MAPFRE

Juan de Urbiete, 15
HERNANI
Tel. 943 331 267
Faxa 943 330 892

Harriberr, 9
ALTZA (Donostia)
Tel. 943 352 794
Faxa 943 353 379

**LAN AHOLKULARITZA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASEGURUAK. INBERTSIOAK**



electrodomésticos
ANNEXO
etxetresnak

Mayor, 59 (Cincoenea)
HERNANI
Tel. 943 550 381
Fax 943 335 730

Juan Bautista Erra, 2
ANDOAIN
Tel. 943 591 558



**ARALAR
TABERNA**

**Zapa kalea, 8
HERNANI**
Tel. 943 331 506



ALBI
decoración

García Goldaráz, bloque 1
Tel. 943 557 154 • Fax 943 552 082
20120 HERNANI (Gipuzkoa)



HATOR
Aseguruak

Aholkularitza
Andre kale, 60 HERNANI T. 943 554 312

Fiskala
Laborala
Juridikoa
Kontabilitatea



aker
Taberna
zapa kalea 7 HERNANI



PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA



Andre kale, 39
Tel. 943 552 787
HERNANI



BIKAS
HERNANI

**Bikas-Zangitu
Dekorazioa**
Kardaberaz, 54
Tel. 943 33 25 94
bikaszangitu@yahoo.es